

Sabino Aranaren ekintzak Euskadiren alde

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Euskaldun Batzokia (1894-1895)

Sortu ta lanean ari zan Bilbon, Correo kallean, eta emen zabaldu zan lau aizetara leen aldiz, euskal ikurriña, arratsaldeko seiretan, uztailearen 14an, 1.894an. Urrengo egunean batzaria egin zan, batzar buru Sabin izanik. Batzarkideak 50tatik gora izanik. Leen erabakia izan zan “Jaungoikoa ta lege zarra” eta bere elburua zazpi euskal errialdeen elkargoa eta bateratzea: Araba, Benabarra, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nabarra ta Zuberoa, eskubide bardiñakin legeak betetzeko, askatasuna banatzeko, giza eskubideak legez bizitzeko, eta Euskera izan daitela gure erriaren izkuntza.

Alderdi barria sortu ta ezarri.

Sabino Arana Goirik 1895 urtean erabaki eraginkorra asmatu eta beteko dau: Euskadiren Alderdi Barria (J.E.L) sortu eta Batzar nagusian zintzo eta zindo oñarrituko da. Batzarkideak ziran: Sabino Arana, Luis de Arana, Fabian de Izpizua, Elias de Lekue, Juan de Aranburuzabala, Ziriako de Llodio, ta Salvador Etxeita. Gertaera zoragarri onetan agertzen da Euskadi zijilua egiztatua izenak emonez. Zorionez gaur egunerarte pozik ta biziro ospatzen dogu ekintza goragarri ori.

Euskadiren edestia eta izkuntzaren pizkundera.

Sabinon ekintzak gero eta geiago ta gorago doaz eta erabakitzen dau oso bearrezkoa dala **ARGITALETXEA: “Bizkaiaren edestia ta izkuntza pizkundera jaso, aztertu, idatzi ta zabalitzeko”**. Sabino jauna, ekiñarez ekiñez, eten barik jardungo da, euskera gaietan idazten. Ara emen bere idazlanak: “Tratado etimologjiko de

los apellidos Baskos” (1895). “Lecciones de ortografía del Euskera Bizkaino” (1896). Auxe da Argitaletxean eginiko lenengo idazlana. Arrigarria da benetan Sabinekin egindako ekintza ori euskera idazkera, ortografiari buruz jarritako araudiak barri ta garbiak, eus-

kerari euskal ganora emoten dautsonak mundu zabalera osoan. Elizalde jaunak diño: “300 orrialde urregorritzkoak” dirala. “Egutegi Bizkaitarra”, “Umeen lenengo adizkidea” umeei euskera irakurri eta ikasteko. (1897)

“Ni enaz bizi neuretzako. Ni bizi naz Euskadiren onerako. Nire biziaren illunabarrian, bai, sortu ta biztu daitela “Askatasun eguzkia”. (Sabin). “Zorionekoa gauzen iturburuak ezagutu al zituen” (Virgilio)

